




## Aireportuen jarduerak gora egiten jarraitzen du

Aireportuetako igaro diren bidaiariak  
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




**EAEko aireportuetako pertsonen trafikoak gora egiten jarraitu zuen eta apirilean %23,1 gehitu zen, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.** Zehazkiago adierazita, guztira 600.000 pertsonak baino gehiago erabili zituzten aireportuak eta serie historiko osoan apiril batean jaso den kopururik handiena da.

Iturria: AENA.

## EAEko esportazioak %26,5 hazi ziren martxoan

Ondasunen esportazioak atzerrira  
Urte bakoitzeko martxoa. Milioi euro




Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, **2023ko martxoan EAEk atzerrira esportatutakoaren balioa %26,5 gehitu zen aurreko urteko hil berarekin alderatuta.** Zifra absolutuetan, guztizko balioa 3.312 milioi eurokoa izan zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena delarik.

Iturria: Eustat.



## EAEko merkataritzak %0,3 handitu zuen salmenta

**Merkataritzako indizea**  
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa




Iturria: Eustat.

2023ko lehen hiruhilekoan, merkataritzako salmentak %0,3 gehitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Igoera txikia bada ere, 2010etik lortutako mailarik altuena da. Era berean, beste datu positibobat sektoreko enpleguaren bilakaerara izan zen, %1,oko hazkundera lortu zuelako.

## Turismoen matrikulazioak gora egin du Euskadin

**Turismoen matrikulazioa EAEn**  
Urte bakoitzeko lehen lauhilekoa



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Aurtengo lehen lauhilekoan turismoen matrikulazioa %14,3 gehitu zen, 8.000 unitate baino gehiago salduz. Ukrainako gerrak ekoizpen kateetan tentsioak sortu dituen arren, hobekuntza lortu da turismoen salmentan.